

TEMPORAL DE VIENTO. DÍAS 28/12/2000 - 5/1/2001

Durante los días 28 de diciembre de 2000 al 5 de enero de 2001 el País Vasco se ve afectado por un fuerte temporal de vientos que superan los 120 km/h en distintos emplazamientos. En estos días se producen numerosos daños a bienes y personas, entre los cuales destacan los hechos acaecidos en Zumaia la noche de fin de año, en que mueren dos pescadores. En los mapas de superficie se observa la pequeña distancia entre isobaras en nuestra zona, lo que significa vientos muy fuertes (ver figura 1.1. y 1.2.).

Durante el período estudiado se observa en superficie un rápido tránsito de depresiones y frentes desde el Atlántico hacia el Mediterráneo entre los paralelos 40 y 50° N (ver mapas de superficie) guiadas por una fuerte circulación del oeste existente en el nivel de 500 hPa a 5500 metros a esa misma latitud (figuras 1.5. y 1.6.).


Las rachas máximas se producen durante todo el período y casi de forma invariable en los mismos lugares, Punta Galea, La Garbea, Oiz, Orduña, Jaizkibel, Kapildui y Zaldiaran con valores superiores o próximos a 150 km/h. Estos lugares corresponden a puntas montañosas y/o próximas al litoral. En algunos casos particulares se han observado rachas huracanadas con valores próximos a 120-130 km/h en localidades como Saratxo y Vitoria o muy fuertes como es el caso de Bilbao y Zizurkil donde las rachas alcanzan valores de 100 km/h (ver figura 1.7.).

HAIZE EKAITZA. 2000/12/28 – 2001/1/5 TARTEA.

2000ko abenduaren 28tik 2001eko urtarrilaren 5era bitartean Euskal Autonomia Erkidegoa haize-ekaitz zakar batek zeharkatu zuen, zenbait lekutan 120 km/h baino abiadura handiagoa ere hartu zuelarik haizeak. Egun horietan bai ondasunek, bai pertsonak kalte ugari jasan zituzten. Larrienak Zumaian gertatu ziren gabon zahar egunean, bi arrantzale hil baitziren. Azaleko mapetan ikus daitekeenez, gure inguruan isobaren arteko tartea oso txikia da, eta horrek, jakina, oso haize indartsuak adierazten ditu (ikus 1.1 eta 1.2 irudiak).


Aztergai dugun epean Ipar latitudeko 40 eta 50° paraleloen artean Atlantiko aldetik Mediterraneorantz bizkor-bizkor igarotzen diren depresioak eta fronteak ikus daitezke (ikus azaleko mapak). Igaroaldi azkar hori latitude horretan 500 hPa -ko mailan, 5500 metro tara, dagoen mendebaldeko zirkulazio zakar batek eragin zuen (ikus 1.5 eta 1.6 irudiak).

Urte osoan zehar abiadura handieneko haizeak ia beti estazio beretan erre gistratu ziren: Glean, La Garbean, Oizen, Orduñan, Jaizkibelen, Kapilduin eta Zaldiaranen, 150 km/h-ren bueltako abiadurarekin. Estazio guzti horiek mendialdean edo-eta kostatik gertu daude. Zenbait kasu zehatzetan urakan erako haize-parrastak izan ziren, esaterako Saratxo eta Gasteizen 120-130 km/h inguruko abiadurarekin edo eta oso indartsuak, adibidez Bilbon eta Zizurkilen 100 km/h -ko abiadurarekin (ikus 1.7 irudia).




1.1 irudia. Analisi mapa.

Figura 1.1. Mapa de análisis.




1.2 irudia. Analisi mapa.

Figura 1.2. Mapa de análisis.




1.3 irudia. Itsas mailako presioa eta haizea.

Figura 1.3. Presión y viento al nivel del mar.




1.5 irudia. Geopotenziala eta haizearen abiadura (500 mb).

Figura 1.5. Geopotencial y velocidad del viento a 500 mb.




1.4 irudia. Itsas mailako presioa eta haizea.

Figura 1.4. Presión y viento a nivel del mar.



1.6 irudia. Geopotenziala eta haizearen abiadura (500 mb).

Figura 1.6. Geopotencial y velocidad del viento a 500 mb.



1.7 irudia. EAEko sare hidrometeorologikoko zenbait estazio automatikotako haize-erregistroak.

Figura 1.7. Registros de viento en distintas estaciones automáticas de la Red Hidrometeorológica del País Vasco.